

## Luis Liz Marzáni Lilly Fundazioaren 2021 Ikerketa Biomedikoaren Saria eman diote

Biomedikuntza garatzen laguntzen duten ibilbide zientifikoak aintzatesten dituzte sari horiek, eta ekainaren 14an izango da sari-banaketaren ekitaldia Madrilen

Luis M. Liz Marzán Ikerketa Preklinikoaren kategorian saritu dute, nanozientiaren eta nanomedikuntzaren alorrean egin dituen ikerketengatik

**Donostian, 2021eko martxoaren 22an.** [Lilly fundazioak](#) Ikerketa Biomedikoaren 2021eko sarietako bat esleitu dio Ikerbasque ikerketa-irakasle Luis M. Liz Marzáni, Ikerketa Preklinikoaren kategorian. Liz Marzán Biomaterialen alorreko Ikerketa Kooperatiboko Zentroko ([CIC biomaGUNE](#)) zientzia-zuzendaria eta Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko ([CIBER-BBN](#)) ikertzaile nagusia da. Bestalde, Ikerketa Klinikoaren kategorian, Carlos Simón Vallés saritu du Fundazioak, zeina INCLIVAko Ugalketa Medikuntzako ikerketa-taldearen koordinatzaile eta Valentziako Unibertsitateko Obstetria eta Ginekologiako katedraduna baita.

20 urteko ibilbidean, 38 ikertzailek jaso dituzte Lilly Fundazioaren sariak. Horrenbestez, aurten ere, bikaintasun zientifikoarekin bat eginda, biomedikuntza garatzen laguntzen duten Espainiako ikertzaile bikainen ibilbideak aitortzen ditu Fundazioak. “Nanomedikuntzaren eta ugalketa-medikuntzaren alorrean jarduten duten bi zientzialari hauen aurkikuntzek balio eta ospe handia eman diete Espainiako osasun-zientziei”, adierazi du José Antonio Sacristán Lilly Fundazioko zuzendariak, eta gehitu du sariak emateko ekitaldia ekainaren 14an izango dela Madrilen.

Lilly Fundazioak nanozientiaren eta nanomedikuntzaren arloan egindako ikerketengatik saritu du Luis M. Liz Marzán. Halaber, Liz Marzanen ibilbide zientifikoa azpimarratzen du: “Propietate plasmonikoak dituzten nanopartikula metalikoak (urra, zilarra) eta gaixotasunak detektatzeko, diagnostikatzeko eta terapiarako dituzten aplikazioak izan ditu ardatz. Liz Marzánek eta haren taldeak zuntz amiloideen sorrera detektatzeko sistema bat garatu dute, kiralitate plasmonikoaren fenomenoan oinarritua, eta nanotermometro fotolumineszenteak sartu dituzte terapia fototermikoan laser bidezko beroketa kontrolatzeko. Gaur egun, minbizia aztertzen ari dira, eta ikerketa-ildo nagusia 3Dko tumore-erakuntzetan nanosentsoreak sartzera bideratuta dago, tumorearen portaera hainbat kondiziotan ulertzeko aukera ematen duten biomarkatzaileak identifikatzeko”.

Era berean, Liz Marzanen argitalpenek duten eragin handia nabarmendu du Fundazioak: “ISI Highly Cited Researcher edo oso aipatua den ikertzaile izendatu dute elkarren segidako 7 urtez (2014/2020). Gainera, bi aldiz jarraian eskuratu du ERC Advanced Grants entzutetsuetako bat (2012-2017; 2018-2023), nanomaterialen aplikazio biomedikoekin zerikusia dutenak biak ere, eta Europako oso ikertzaile gutxik lortu dute hori”.

“Sariak beti pozarren jasotzen badira ere, eta bai norberaren zein lantalde osoaren eta kolaboratzaileen ahalegina eta dedikazioa aintzatesteko balio dutela sentiarazten badute ere, sari bakoitzak bere ekarpen txikia egiten du. Lilly Fundazioak biomedikuntzako ikerketa saritzen du, eta bereziki eskertzen dut; izan ere, biomedikuntzaren alorrean nanomaterialen aplikazioak bilatzea oso erronka garrantzitsua da. Vigoko Unibertsitatean abiarazi nuen erronka hori, baina funtsean CIC biomaGUNEen garatu dut, non inguruneak eta giroak benetan bultzatzen baitute mailarik goreneko ikerketa. Beraz, sentitzen dut sari honek ez duela bakarrik nire lan zientifikoa saritzen, baizik eta biomedikuntzako bikaintasunezko ikerketa-zentro gisa berresten duela CIC biomaGUNE”, dio pozez Liz Marzánek.

Gainera, nabarmendu duenez, “hemen aitortzen den lana talde-lana da, eta ezingo litzateke beste modu batera egin. Nirekin jardun duten ikasle eta ikertzaile guztiek, bai nire laborategikoek bai kanpo-kolaborazioen bidezkoek (bereziki CIC biomaGUNEen eta CIC bioGUNEen, baina baita CIBER-BBNren bidez ere), ekarpen garrantzitsuak egin dizkiete bidean lortu ditugun ideia eta emaitzei. Halaber, nire azken mentoreen, Manuel Martín Lomasen eta José María Matoren, laguntza eskertu nahi dut, bai eta Eusko Jaurilaritzaren eta Ikerbasque Fundazioaren ahalegin ekonomikoa ere, horri esker sortu baita aipatu dudan bikaintasun-ingurune hori”.

### **Lilly Fundazioa: 20 urtez zientzia inspiratzen (#InspirandoCiencia)**

Lilly Fundazioak 20. urteurrena ospatzen du aurten, eta helburu hauek ditu: Espainiako osasungintza garatzen laguntzea, herritarren osasunaren mesedetan; ZIENTZIA eta ikerketa sustatzea, eta gizartean kultura eta zientzia-dibulgazioa sustatzea; MEDIKUNTZA garatzen laguntzea, ezagutza biomedikoa sortuz, ezagutza hori zabalduz, profesionalak trebatuz eta osasun-hezkuntza sustatuz; eta HUMANISMOAREN oinarritzko balioak sustatzea osasungintzaren arloan.

### **CIC biomaGUNEri buruz**

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.